

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

- **ERAGILEAK**

- Hasteko, Sozietate anonimo bat osatuko dugu eta hasierako bazkideak sortzaileak izango dira hau da, taldeko 5 kideak. Jabeak izanda enpresa guztiaren kontrola gurea izango da. Proiektua gauzatzen dutenak gu gara, beraz hasierako kapitala edo sarrerak guk jarriko ditugu bultzada bat emateko. Denbora aurrera joan ahala, proiektua, hau da aplikazioa eta enpresa ondo baldin badoazte saiatuko gara kapitala handitzen eta beste pertsonen nahia pizten, kapitala akzioetan banatuz nahi duenak erosteko eta enpresaren zati bat izateko.

Hornitzaileei erreferentzia eginez, bi hornitzaile mota izango ditugu. Alde batetik, APP store eta Google Store izango dira. Bestalde, Spotify, Instagram eta YouTube ere zerbitzuak eskainiko dizkigute eta ezinbestekoak izango dira gure aplikazioa funtzionatu ahal izateko, izan ere haiek existituko ez balitz ezingo genuke gure aplikazioa sortu.

Jende espezifiko hauetara bideratzeko marketing teknika desberdinak erabiliko dira eta garrantzitsua izango da bai kontsumitzaileen onurako baita aplikazioaren funtzionamendurako. Azkenik, bezero eta hornitzailearen arteko harremanari erreferentzia eginez, *Check It* aplikazioa bezeroekin harremana sustatzeko hainbat iragarkiez baliatuko gara, Euskadi Gaztea irratsaioaren bidez esate baterako. Iragarki horiek sare sozial anitzetan agerian egongo dira baita kartel publizitarioetan. Izan ere, gure arteko harremana ahalik eta estuen izatea da gure helburua, bezeroak ala dion moduan.

- **ROLA**

- Eragileei buruz hitz egiterako garaian, eragile desberdinak daude. Aurreko atalean komentatu den bezala gure hornitzaileak eta modu berean gure eragileak izango direnak, bi taldetan banatuko dira. Lehenik, Google Store eta App store-n eragina izango da gure aplikazioa deskargatzeko aukera ematea. “ Store “ hauen bidez gure aplikazioa erabili ahaliko da. Bigarrenik, Spotify, Instagram eta YouTube beste eragin mota izango dute, hauek abestiak, bideoak eta entrebistak aurkitzeko aukera emango digute, izan ere, ikusentzunezko guztiak beste aplikazio mota hauetan agertzen dira, beraz eragin zuzena dute gure aplikazioaren oinarria direlako.